

erabilera sustatzeko egitasmoak antolatuko ditu Udalak

Parketarrak egitasmoa abian da jada eta Haurrak Beti Jolasean eta Kirol klubetan euskara erabiltzeko KEES metodologia martxan jarriko ditu berehala

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak haur eta gaztetxoek aisialdian euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak antolatuko ditu aurtengo ikasturte ezohiko honetan. Haur eta gazteen aisialdian, arnaguneak sortu eta euskarari lekua egiteko premia dago, haur eta gazte askok euskararekin duten harreman bakarra akademikoa baita. Hori dela eta, Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabilera eskolaz kanpo sustatzeko egitasmoak antolatzea erabaki du, bizi dugun egoerara egokituta eta behar diren prebentzio-neurriak hartuz.

Aste honetan jada, Parketarrak izeneko egitasmoa eskaintzen hasi da hiriko hamabost auzotan: Gros, Antigua, Altza, Bidebieta, Loiola, Loiolako Erriberak, Amara, Amara Berri, Añorga, Parte Zaharra, Egia, Aiete, Morlans, Martutene eta Ibaeta. Egitasmoari esker, haurrak kalean eta parkean euskaraz aritzen dira jolasean. Urtxintxa eskolak aurrera eramango duen egitasmoa bi programatan banatuta dago: bata, Zabuzibu, 3-5 urte bitarteko haurrentzat eta beraien familientzat antolatutakoa, eta bestea, Txirrintxon, 6-9 urte bitarteko haurrentzat. Udazken honetan 105 saio egingo dira Donostiako plaza eta parkeetan (Saioen ordua eta lekua donostiaeuskaraz webean) urriaren 9a bitartean. Hurrengo saioak 2021eko udaberrian antolatuko dira.

Covid 19 dela eta, prebentzio-neurriak hartuko dira

Udaleko Euskara Zerbitzuak "Parketarrak" egitasmoa egokitu behar izan du eta horrek zenbait ezaugarri eta baldintza aldatzea ekarri du. Aldaketa horiek egitea ezinbestekoa izan da haurren, familien eta hezitzaileen osasuna arriskuan ez jartzeko. Antolatzaileek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte: haurrei tenperatura hartu eta eskuak garbieraziko zaie jolasean hasi aurretik; talde bakoitzean bederatzi haur ariko dira gehienez; taldeak ez dira nahasiko; distantzia soziala mantenduko da eta 6-9 urte bitarteko haurrek musukoa erabiliko dute.

Prentsa Oharra

Haurrak Beti Jolasean, urritik aurrera, jolas eremuan edota on line

Udaleko Euskara Zerbitzuak, bestalde, Haurrak Beti Jolasean egitasmoa antolatuko du urritik ekainera. Jarduera hori eskola eremuan antolatzen da, bazkaldu eta gero, edota eskola bukatu ostean. Aurten, Covid 19 dela eta, eskaintza egokitu egin da: jolasak eskola eremuan egingo dira hasiera batean, baina egoera dela eta, bertan biltzea edo jolastea debekatuko balute, on line bidezko saioak(aurrez aurre telematikoak) antolatuko lirateke. Jon Insausti kultura eta euskara zinegotziaren esanetan *“hurrei euskara erabiltzeko guneak eskaintzea da garrantzitsuena. Udan on line bidezko saio ludikoak antolatu genituen modu pilotuan eta emaitza positiboak eman zituen. Horri esker, Haurrak Beti Jolasean egitasmoa jolas eremuan edota on line aurrera eramateko prestatu dugu”.*

Egitasmo hau ikastetxeekin elkarlanean eramaten da aurrera, Haur Hezkuntzan laugarren mailatik hasita eta Lehen Hezkuntza osoan. Iazko ikasturtean 20 ikastetxeko 900 bat haur aritu ziren euskaraz jolasean. Interesatuta dauden gurasoek ikastetxean edota Udaleko Euskara Zerbitzuan eska dezakete informazioa.

17 kirol elkartek KEES metodologia ezarriko dute euskara erabiltzeko entrenamenduetan

Kirola ere aisialdirako eremu garrantzitsua da haur eta gazteentzat, eta Udaleko Euskara Zerbitzua lanean ari da euskararen presentzia areagotzeko bertan. Udaleko Euskara Zerbitzuaren KEES (Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko) egitasmoari esker, Donostiako 17 kirol elkartek (Añorga KKE, Askatuak SBT, Egiako Eskubaloi Taldea, Fortuna KE, Atletiko SS, Bera Bera, Easo SBT, Judo Club SS, Gros Xake Eskola, Ur-Kirolak, Groseko Indarra Surf taldea, Konporta K.E, Martutene KE, Donostia Gimnasia Erritmikoa, Irutxulo sub urpekariak, Tximeleta eta Reala-Atletismo saila) 2020-2021ean entrenamenduak euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute. Kirol elkarte horietako 147 taldetan euskara izango da entrenamendurako hizkuntza, eta horri esker, ia bi mila hurrek euskaraz entrenatuko dute.

Donostian, irailaren 24an